



SUAREN GAINEAN

Suaren / gainean mugi gaiten
Suaren / azpitik salba gaiten
Suaren / gainean mugi gaiten
Suaren ken, ken!
hankak erre baino lehen.

Ni naiz karneteko
zenbaki xarmanta
segur bizi dena
marketina janda.
Gizartean banalaz
Itzalen bat han da
bakarrik ere bai
non naizen esanda.

Hi haiz eskubide
guztien albuna
haserretu arte
jauntxo sugin jauna.
Pasatzea daukag
oihuka eguna
hi haiz hitz libre bat
inon ez entzuna.

Diok hori dela
Inkislizioa
nora uste huen
hitzela jaioa?
Ama sortez hila
dukan Edipoa
maltzak amorde
demokratikoa.

Gitarra akustikoa: Alberto "Azer" Durabildu.
Gitarra elektrikoak: Karmelo, Anjel Durabildu.
Gitarra elektrikoak: Edo Cruz.
Baxua: Inaki Iturriz.
Bateria: Iñaki Arriola.



JAUN FUTRE

Beren paparra soinean
karrikan dabiltz
iduri senoritoak
argi edo hitx
agente zerbait dukete?
Deus gutti haunitz
baina hori ezin erran
norbait ez bahiz.

Jaun futre, horrela naute deitzen naute
jaun futre, funtzionari naukate.

Lagungarri izan behar
laguntzen ote?
aginduak goltik datoz
manatzen naute
Itxura eman beha dut
erran didate
toki beroan hago ta
jar borondate.

Jaun futre, horrela deitzen naute
jaun futre, funtzionari naukate.

Nik ere nahiko nuke izan
boreretsua agintzeko
goltik behera, legez, ordainez
neure nahiak onartarazteko.

Jaun futre, horrela naute
jaun futre, funtzionari naukate.

Gilarna akustikoa, Akortu, Anir Dekaldar,
Gilarna elektronikoa, Edo Cruz,
Baxen, Mikel Irujo,
Baforra, James Arnabit,
Korrek, Angel Utxe.

SAI TA BELE

Hor dabiltz, biraka
ongi gordez beren jarrera
egun hor, bihar han
haizea nora, berak hara.

Bele beltz, saizuri guziak batera
ipur beltz, ipur zuri, denak jatera.

Milaka, mihaka
nun zer jan, nun ote milika
dirua, jainkoa
sendituz hor doaz lasterka.

Bele beltz, saizuri guziak batera
ipur beltz, ipur zuri, denak jatera

Herio herio dario
hau da gure urre negozio
herio, herio dario
bake noster zuri laudazio.

Hitz eder, mihi motz
beti indartsuaren aldera
bakea otoiutz
olioa bota su gainera

Bele beltz, saizuri guziak batera
ipur beltz, ipur zuri, denak jatera.

Herio herio dario
hau da gure urre negozio
herio herio dario
bake noster zuri laudazio.

Gilarna akustikoa, elektronikoa, Baxen, Angel Utxe,
Gilarna elektronikoa, Baxen,
Baxen, Mikel Irujo,
Baforra, Perfasiou, James Arnabit,
Akortu, Anir Dekaldar.

BEKAITZ

Ikusi nuenean nor nintzen, zer nintzen
txoria zen nahi nuena
hegatzearen kontzientzitik; mundua
gain begiratzen duena.

Txoritu nintzen eta itsaso aintzira
ibalak gainditu ala
hauteman nuen arraina eta bekaiztu
nintzen hartaz berehala.

Nekatu nintzen izaten
beti zerbaiten bekaizt
neure buruaz bekaiztea
edo nitaz bekaiztu nintzen eta
azkenik lasaitu naiz.

Arraindu nintzen eta bekaiztu ninduzun
ibal ondoko zuhaitzez
zuhaitzu nintzen eta luzatu ninduzun
izar ilxen bekaiztez.

Zergatik ez naiz behingotz izango, nioen
neure buruaren bekaizt
guztia eta hobeki goza dezadan
izar txori arrain zuhaitz...

Gilarna akustikoa, Akortu, Anir Dekaldar,
Gilarna elektronikoa, Angel Utxe,
Baxen, Mikel Irujo,
Baforra, James Arnabit.





ISILEAN

Isil, isilean narama iduri ibal laño ta leun bat goxo, goxoki beregana inguratzen naiz hain da atsegina ez du bestek ez dutenikan edo behar bada ez duten hura preso nago bere saretan zoin goxo nageen bere besotan.

Maite, maitasuna zer ote ez bada luzakor, ez bada debalde dena, dena edo ez dena denborak darama, nun ez den pena bihar, zer dator bada bihar amets ezinezko, amets goztiaz egun, egun bizi gaitera goza dezagun gaur ta agur bihar.

12ko Gitarra: Akustikak, Anjel Dukalder
Gitarra elektronikoa: Anjel Ureta
Baxoa: Mikel Irigarai
Bateria: Iñaki Arriola
Abeslaria: Josan Golechurra

BILINTZI BALANTZAN

Artistatzat batzuk naukate beste batzuk hori gustuko ez dute ni zer naizen ez dakit bate batzutan jaun gehienetan arlote zeren ondotik nabilen horrela ametsaren bidean galdua maitasunaren zoronbiloetan herraren hatzetan harrapatutik nabil.

Bilintzi balantzan su gainean dantzan.

Denen gustuko ezin izanik nere hautua aspaldi daukat egirik haize saltzaileen bideetatik ez nabila ez baina neuretik gogotik mihian bilorik gabe mintzo naiz horregatik ote dut ba hobetik egi gordinaren zale naiz eta maltzurkeria ezin jasana dut nik.

Bilintzi balantzan su gainean dantzan.

Gitarra akustikoa: Akustikak Anjel Dukalder
Gitarra elektronikoa: Edo Cruz
Gitarra elektronikoa: Bati
Bateria: Porfiriosak, Iñaki Arriola
Baxoa: Mikel Irigarai

LANGABEAK

Lana, lana,
noni zegok lana?
Eramana
ala jana
al duk dena
nagusi jauna?
Non zegok, non zegok lana?

Beharren nuela kendu didate lana denbora utzi didate nekez doana. Loa ere gutxitu zait hau panorama denbora hutsa daukadana.

Ene aita, nik ez daukat zure samnik zuk galdua zer den ere ez bait dakit nik. Jakiteko berriz ez dut ibaroenik nor da hau iraul dezakenik?

Ene seme, hire aita duk okerrago hik bederen baduk kemen bururakako. Ni ez bait naiz txatar ere poztu beharko biltzen banaute zabortzako.

Ene aita, heldu zaigu epai gordina zuri etsipena eta niri ezina. Ni naiz zulo beltza eta zu hondakina Adio Santa kabelaia.

12ko Gitarra: Akustikak, Anjel Dukalder
Gitarra akustikoa: Kruusak, Anjel Ureta
Baxoa: Mikel Irigarai
Bateria: Porfiriosak, Iñaki Arriola
Gitarra elektronikoa: Bati

IRTENBIDERIK EZ ZEN

Jo naute / hil naute
Irtzenbiderik ez zen
Jo naute / hil arte
Itzulbiderik ez zen
onena / hiltzea
zela oharitu nintzen
neronen gorputza ere
ez nuen ezagutzen.

Amaitu da guztia
urgain barean nago
Itsasoen harago
eta atsedenago
Gezurra diodanik
ez didazu esango
Iruditzen banauzu
ordu batzuk lehenago.

Milesker, oi Herio
salbatu nauzulako
ukan nazazu otol
beti zure meneko.
Zuek ez egin negar
isllak diraueno
orain hobeki nago
haien eskuan baino.

Utz nazazue neure
amets gabeko lotan
oroitu nazazue
sehaskako bertotan.
Bizitzaren batera
berriz itzartzekotan
ez nazazue piztu
gorputz apurtu hontan.

126a Gilera, Aitor, Anx Duhalede
Gilera, Zigorribas, Angel Urcia
Bosno, Mikel Inzauri
Beterria, Perlasuoki, Janmi Arrañol

ON THOMAS

Inkiszio santuaren garrak itzali ziren
elizan eta eskoletan hori entzuz genuen
ohitura zarrak berritzea kultur giltza nola den
On Thomasen sua heldu da aitaren semearen

Egun On Thomas jaun hori
ongi al da berori.

Txanponin txintxin money money diru sorgin garrailsi
kantutik ezin bada ere kantuz nahi dut bizi
bizirik utzi nautilako milesker On Thomasi
kanta denek txalopin txalo doremi fasollasi.

Egun On Thomas jaun hori
ongi al da berori.

Donibane bezpera gaua suaren akelarre
arto gariak gorde eta apo sugeak erre
Iztik, mizti sorgin kiristi, baita birginak erre
do re mi fa Thomasidosi thosi ma sol fa mi re

Egun On Thomas jaun hori
ongi al da berori.

Demokrazia izpidea dela erran dizute
gero beren hitza ez bada sos gabetzen zaituzte
baina zergak ordaindu gabe libratzerik ez uste
dena libre nahi baduzue On Thomastu zailtze.

Egun On Thomas jaun hori
ongi al da berori.

Gilera akustikoa, Aitor, Anx Duhalede
Gilera akustikoa, Karroek, Angel Urcia
Bosno, Mikel Inzauri
Beterria, Janmi Arrañol
Aldondoa, Jesus Galdetxusa



URTEGIAK NUN

Urtegiak nun?
Urtegiak nun?
Urtegiak nun?
Norentzat eta nun (Nolakoak eta nun)
Betor ura

Ura behar da bai, baina non jarri nahi
diguzue urtegi hori?
Bizia izanik, etzazue ura
egin mundu baten hilobi.

Noiznahi eta zernahi inposatzeko gailu
aurrerapen basati, al haiz hi?
Ez gure sorburu dugun ur bizia
ur hiltzalele izan erazi.

Betor ura
nor da horren aurka denik?
Ekar ura
ekar ura
baina ez hondamenik.

Hemen dago lur bat, gainean herri bat
bizirik eta bizigale.
Ez al dago urik non bildu inoren
gogoia urperatu gabe? (historia hondatu gabe)

Gilera akustikoa, Aitor, Anx Duhalede
Gilera akustikoa, Aitor, Anx Duhalede
Bosno, Mikel Inzauri
Beterria, Janmi Arrañol
Karroek, Angel Urcia

LASAI GAZTE (KE ARTEAN)


Gizarteak
akats nabarmenak,
derrigorrean
dauden ordenak,
aldatu nahi
gazteon kemenak.
Ta denbora
galdua dutenak;
zaharrenak
mar-marrean denak:
"Lasai gazte
lasaitu hadi!!"

Sorgin baten
erratz zaharrean
murgildu nahi dut
akelarrean.
Ke artean berotan,
ilunabarrean,
mila larru
larru bakarrean
debekurik
gabeko larrean!
"Lasai gazte
lasaitu hadi!!"

Haur helduei
ametsak lapurtu
mundu borobilalauki bihurtu
zuzenkeri
guziak kixkurtu
legedia
infernuan urtu
logikaren
arauak apurtu.
"Lasai gazte
lasaitu hadi!!"

Telebista
horman jo ta hautsi,
irudimenai
joaten utzi.
Nahiz ta egi
txikiak miretsi,
handiak ez
sekula sinetsi:
Lurra jo arte
goiari eutsi
"Lasai gazte
lasaitu hadi!!"

Gitarra abiatatzen: Mikelbe, Anejo Duhaldé,
Iñaki, Mikel Iturrutzi,
Perikasioak, Iñaki Arrañitz,
Arriola, Angel Urcia.



ZALANTZAN

Zalantzan
beti nabil zalantzan
zalantzan
amaigabeko dantzan.

Hanka bata doakit trabes
bestea zehar edo aurrez
burua zeini segi galdez
berak agintzeko gauza ez.

Nire gitarrak zazpi hari
behar nituzke hogeita bi
askotan bat ere gehiegi
Zer egin? Jo ala eskegi? (utzi ala segi?)

Nabilen ala naramaten
azkartu ala martxa eten
argituko al naiz gauren baten
denborak ez dit itxaroten.

Dudaka mudaka ai, ai, ai!
denean ez naiz hain dudagai
nor dudan lagun, nor den etsai
hori badakit, badakit bai!

Gitarra abiatatzen: Aitorbe, Anejo Duhaldé,
Gitarra abiatatzen: Karmek, Angel Urcia,
Iñaki, Mikel Iturrutzi,
Bateria: Perikasioak, Iñaki Arrañitz.